Aguas Municipales de Vitoria-Gasteiz, S.A.
AMVISA
Vitoria-Gasteizko Udal Urak, A.B.

# HERRITARREN ATARIA ERABILTZEKO GIDA

## Herritarren Atarirako Sarbidea

**Bulego Birtualera pertsona fisikoek nahiz juridikoek (enpresak) jo dezakete.**

**Pertsona fisikoak** bide hauetakoren batetik sartuko dira:

- nan elektronikoa: PINa eman ondoren sartzen da.
- Herritarren Udal Txartela (HUT): Udalaren webgunean, www.vitoria-gasteiz.org edo Herritarren Arretarako Bulego batean aktibatu daiteke. Eskatutako eremuak bete beharko dira.
- BAK: Ezinbestekoa da NANa eta pasahitza edukitzea.
- BAKQ: NANaz gain, koordenatu batzuk dituen pasahitza beharko da.
- **Izenperen edo FNMTren** ziurtagiri digitala, edo beste batzuk**.**

**Pertsona juridikoek ziurtagiri digitala** beharko dute.

GARRANTZITSUA

Herritarren Atarira sartzean, eta **soilik erabiltzailea ez badago AMVISAren datu basean erregistratuta** aldez aurretik enpresarekin harreman komertzialik ez izateagatik, **lehenik eta behin bere burua erregistratu behar izango luke** (pantailan abisua agertuko da erabiltzailea sisteman ez dagoela esateko).

Horretarako, **Erabiltzaile Alta** izeneko esteka ireki behar du, eskatutako informazioa osatu NANa erantsita, eta AMVISAtik **baieztatzeko mezu elektronikoa** jaso arte itxaron. Behin erregistratuta, edozein izapide egin ahal izango du, Atarira ohiko prozeduraren bidez sartuta.

Bezero gisa alta eginda eduki arren, erregistratutako helbide elektronikorik ez badauka, online gestioak egitean AMVISAren jakinarazpenak jaso ahal izateko horrelako bat eskatuko zaio.

Behin Herritarren Atarira sartuta, orriaren goiko eskumaldean, erabiltzaileak une oro jakingo du saioa bere izenean irekita dagoela. Etiketa honen bitartez **Aplikaziotik irten** edo **Erabiltzailearen datuak aldatu** daitezke.

## Egin daitezkeen izapideen eta ekarri beharreko agirien zerrenda

**AMVISAko Herritarren Atariaren bidez Uraren Zerbitzu Integralaren eskaintzari lotutako izapide ohikoenak egin daitezke.** Izapide nagusien azalpenera sartu dagokion dokumenturako esteka irekita.

### Dokumentazioa eskatzen dutenak:

**Horniduran alta ematea**

**Horniduran baja ematea**

**Ordainketak helbideratzeko kontu korrontea aldatzea**

**Posta bidaltzeko helbidea aldatzea**

### Dokumentazioa eskatzen ez dutenak:

- Kontagailuaren irakurketa (abonatuak egindakoa)
- Fakturak kontsultatzea eta ordaintzea (fakturak pdf-an ikusteko eta ordainagiriak ordaintzeko)
- Kontratuaren datuak kontsultatzea
- Kontsumoen kontsulta
- Teleirakurketa ikustea
- Abonatuaren datuak aldatzea

## Aribidean dauden izapideen jarraipena

Herritarren Atariaren bidez, erabiltzaileak bere kudeaketen egoera egiaztatu dezake **Izapideen Jarraipenaren Kontsulta** eremura sartuta:

- **Kontratu berri**aren bitartez, alta bat tramitatu nahi bada.
- **Dauden kontratuen** bidez, gainerako tramiteetarako.